

LIMANAJO

Sarrera

Guk -Maddi, Ligia, Jon eta Naty- online arropa denda bat sortzea erabaki dugu.

Gure helburuak:

Enpresa ugari bezala, behin enpresa sortu eta martxan jarritakoan, ahalik eta bezero gehiago erakartzen saiatuko gara, publizitatea eginez edo gure enpresaren berri ahoz aho zabalduz. Behin nahi ditugun bezero kopuru minimoa izandakoan, hauek mantentzea eta salmenta kopurua handitzea saiatuko gara.

Baina beste enpresetatik bereizten digun hainbat berezitasun ditu gure enpresak: Ideia nagusian aipatu dugun moduan, arropa birziklatuekin egindako materialak erabiliko ditugu gure produktuak sortzeko.

Gainera, gure bezeroak produktua pertsonalizatzeko aukera izango dute, hau da, produktuaren materiala, diseinua edota forma berezi bat aukeratzeko aukera izango dute. Pertsonalizatzeko, gure gmaileira mezu bat bidali dezakete nahi dituzten aldaketak edo gehigarriak deskribatuz edo diseinuaren argazki bat bidaliz.

Material hauek erabiltzeagatik, hainbat onura izango ditu planetarentzat, adibidez: planetaren kutsadura-maila jaitsi egingo da eta jende askorentzat "hondakinak" direnak, guk berrerabili egingo ditugu.

Zenbait bezeroentzako ondorio negatibo bat izan dezake, hau da, material hauek garestiak direnez, arroparen prezioa ere beste arropa baino pixkat altuagoa izan dezake.

Material nagusiak hauek izango dira: algodoi organikoa eta plastikoa.

Interes handiena ez da kostuak murriztea, baizik eta bezeroari planetarentzat onuragarriagoak izango diren arropa erosteko aukera izatea, beti kalitatea zainduz eta prezioa bezeroentzako zein guretzako errentagarria izanik.